

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2021eko ekainaren 24a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 19:42

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Ainara Munduate Iguaran, Xabier Iburguren Azkue, Beñat Solaberrieta Albizu, Bakarne Oliden Albeniz, Bittor Andres Alkorta, Lourdes Salsamendi Goñi, Andoni Torres Fernandez, Jon Basurko Sarasua, Amaia Gozategi Urbieta, Jose Javier Gomez de Segura Arce, Ana Priede Merchan eta Jose Angel Iparragirre Alberdi.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Berrestea, egoki bada, 2021eko ekainaren 17ko 313/2021 zenbakidun alkate-dekretua. Dekretu horren bitartez onartzen da Orioko herrian bertakoentzat aparkatzeko guneak sortzea eremu jakin batzuetan.
- 2.- Dagozkion erabakiak hartzea, egoki bada, Arrantzale kaleko bidegorria hondartzako bidegorriarekin lotzeko proiektuari buruz.

3.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- BERRESTEA, EGOKI BADA, 2021EKO EKAINAREN 17KO 313/2021 ZENBAKIDUN ALKATE-DEKRETUA. DEKRETU HORREN BITARTEZ ONARTZEN DA ORIOKO HERRIAN BERTAKOENTZAT APARKATZEKO GUNEA SORTZEA EREMU JAKIN BATZUETAN.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

BERRESTEA 2021eko ekainaren 17ko 313/2021 zenbakidun alkate-dekretua. Dekretu horren bitartez onartzen da Orioko herrian bertakoentzat aparkatzeko gunea sortzea eremu jakin batzuetan.

2.- DAGOZKION ERABAKIAK HARTZEA, EGOKI BADA, ARRANTZALE KALEKO BIDEGORRIA HONDARTZAKO BIDEGORRIAREKIN LOTZEKO PROIEKTUARI BURUZ.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta Hirigintza batzordeak egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

HASTEa dagozkion lege-tramiteak eta informazio publikoko tramiteak, Arrantzale kaleko bidegorria hondartzako bidegorriarekin lotzeko proiektua onartzeko.

3.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,